

I. ERANSKINA

ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO

DIDAKTIKOA EGITEKO TXANTILOIA

ANEXO I

PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN

DIDÁCTICA ANUAL DE ÁREA O MATERIA

2016-17 Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa

Programación didáctica anual/de curso 2016-17

ikastetxea: <i>centro:</i>	URIBE KOSTA BHI	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	BATXILERGOA	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	2
arloa/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	FILOSOFIAREN HISTORIA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>			
diziplina barruko oinarriko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	JAVIER ELIZBURU ARANBERRI	ikasturtea: <i>curso:</i>	2016-2017

Zeharkako kompetentziak / *Competencias transversales:*

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
5. Izaten ikasteko kompetentzia.

helburuak

ebaluazio-irizpideak

<i>objetivos</i>	<i>criterios de evaluación</i>
<p>Honako hauek dira Filosofiaren Historia ikasgaiko helburuak etapa honetan:</p> <p>1. Jarrera kritiko arrazionala lantzea, eta horretan, teoria eta korronte filosofikoen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak erkatzea, eta korronte horiek beren koordinatu historikoekin eta paradigma kulturelekin lotzea, norberaren ikuspuntutik gizartefenomenoak interpretatzeko eta balioesteko (gaur egungo mundukoak, batik bat).</p> <p>2. Ikasgaiari lantzen diren egileen pentsamendua ondo esplikatzea, eta horretan, diskurtso koherenteak josten jakitea, ideia nagusiak testuinguruan emanik, eredu horri jarraituz nork bere gogoetak, ideiak eta proposamenak antolatzeke.</p> <p>3. Testuetan lantzen diren auzi filosofikoak identifikatzea, eta auziok kritikoki aztertzea, norberaren ikuspuntuak argudioak eta arrazoiak emanaz defendatzeko.</p> <p>4. Besteen argudioak, proposamen filosofikoak, iritziak eta sinesmenak onartzea, eta horretan, elkarrizketa arrazionala eta ideien adierazpen librean aldezte, denen iritziekiko eta, aldi berean, Euskal Herriko aniztasun politiko, ideologiko eta kulturalarekiko errespetua lantzeko.</p> <p>5. Filosofiaren berariazko baliabideetan oinarrituta, eguneroko gertaerei ikuspegi kritikoerreflexibo batetik aurre egiteko baliabide intelektual eta epistemologikoak eskuratzea.</p> <p>6. Historiaren joanean egindako proposamen eta interpretazio filosofikoen bidez, arrazoimenak giza ekintza indibidual nahiz kolektiboa arautzeko duen ahalmena aintzat hartzea, horrek norberaren portaera irizpide arrazional zibikoekin eta bizi garen errealitatearekiko konpromiso pertsonalarekin bat eginik orienta dezan.</p>	<p>1. Filosofiaren jatorria antzinako Greziako testuinguru historikoarekin lotzea, eta ondo aztertzea iraultza antropologikoaren bilakaera. Mendebaldeko filosofiaren sorrerako testuinguru historikoa eta pentsaera antolatuko lehen sistemak deskribatzen ditu. Filosofia presokratikoei buruzko informazioa bilatzen eta hautatzen du Sarean. Greziarrek physis, logos eta arjé kontzeptuei ematen zieten zentzua azaltzen du. Asiatik eta Egiptotik etorritako pentsaera-ildoekin lotzen du filosofia presokratikoa. Kultura asiarren pentsaera-sistema batzuk lotzen eta labur adierazten ditu. Labur azaltzen ditu filosofiaren biraketa antropologikoaren ezaugarri historikoak eta garai hartako gertaerak. Sokratesen eta sofistekaren arteko eztabaidan parte hartzeko ekarpenak eta argudioak osatzen ditu taldean. Platonen testuak aztertzen ditu. Filosofia sokratikoarekin eta sofistekarekin zuen eztabaidarekin lotzen ditu aztertutako testuak. Hiria gobernatzeko moduari buruzko disertazioak egiten ditu, eta horietan, Platonen jarrera eta jarrera sofista azaltzen ditu. Platonen eta Aristotelesen filosofien alderdi giltzarriak konparatzen ditu. Greziak Kristo aurreko IV. mendean zuen egoera historikoaren testuinguruan kokatzen du Aristotelesen filosofia. Aristotelesen testuak aztertzen ditu. Filosofia helenistikoari buruzko saiakera labur bat egin eta ikasgelan azaltzen du (eta/edo Sarean argitaratzen du). Biraketa antropologikoaren nolakoa ebaluatzen du, filosofia presokratikoarekin alderatuta.</p> <p>2. Kristau-pentsamenduaren jatorria esplikatzea, eta horretan, jakitea kristautasunak nola egin zuen bat filosofiarekin eta zer pentsamendu-korrante izan ziren nagusi Zientzia Modernoa sortu bitartean. Kristautasunak Erroma inperialean zuen egoerari eta erlijio ofiziala bihurtu arte izan zuen bilakaerari buruzko informazioa biltzen eta azaltzen du.</p>

Mendebaldean IV.V. mendeetan izan zen mapa intelektuala azaltzen du eta mapa horretan kokatzen du Agustin Hiponakoa.

Agustin Hiponakoaren testuak aztertzen ditu.

Agustin Hiponakoak arrazoimenaren eta fedearen arteko harremanaren gainean egindako proposamena azaltzen du.

Aزتتzen du zer esanahi zuen “arrazoimenak” feudalismoaren garaiko pentsaera kristauan eta zer harreman zuen federekin.

Artearen inguruko adibideak jartzen ditu, batik bat erromanikoaren eta gotikoaren garaiko arkitekturaren alorrekoak, planteamendu filosofikoekin lotzen ditu eta teozentrismo supernaturalistaren esparruan kokatzen ditu.

Erdi Aroaren ezaugarriak azaltzen ditu eta hor kokatzen du Tomas Akinokoa; batik bat, arrazoimenaren eta fedearen arteko harremanei dagokienean.

Haren garai historikoarekin lotzen du Tomas Akinokoaren pentsaera.

Tomas Akinokoaren testuak aztertzen ditu.

Tomas Akinokoaren pentsaeraren herentziaren eta filosofia judu eta arabiarren bidez izan duen transmisioaren gaineko lan bat egiten du taldean.

Nominalismoaren tesi nagusiak eta haren sorrerako testuinguru historikoa azaltzen ditu.

Gilen Ockhamgoaren testuak aztertzen ditu.

Agustin Hiponakoak, Tomas Akinokoak eta Gilen Ockhamgoak arrazoimenaren eta fedearen arteko harremanei buruz zituzten jarreraren gaineko eduki digitalak sortzen ditu taldean.

Jainkoaren ahalguztiduntasunaren tesi nominalista eztabaidatzen du ("Jainkoak edozer egin dezake, eta egiten duena egiten duela, ez dago kontradikziorik").

3. Errenazimentuan Mendebaldeko filosofiak egindako iraultzaz gogoeta egitea eta ulertzea iraultza horrek ekarri zuela Modernitatea.

Errenazimentuaren sorrerako koordinatu historikoak deskribatzen ditu eta kritizismo nominalistarekin lotzen du hura.

Antropozentrismo naturalistaren kontzeptua azaltzen du, teozentrismo supernaturalistaren kontzeptuarekin alderatuta.

Errenazimenduan artearen, zientziaren eta filosofiaren eremuetan egin ziren lanen gaineko saiakera labur bat egiten du, eta harremanetan jartzen ditu lan horiek, haien ezaugarrietatik

abiatuta.

Kristo aurreko V. mendeko biraketa antropologikoarekin lotzen du humanismoa.

Autore handienek zientzia berriari egin zizkioten ekarpenak azaltzen ditu.

Politikari buruzko ikuskera berriaren gaineko informazioa bilatzen eta hautatzen du Sarean eta beste iturri batzuetan, ikaskideei azaltzeko.

4. Aro Modernoa sorrarazi zuten indarrak identifikatzea, eta horretan, indar horiek beren aurrekariekin

lotzea eta arrazionalismoak errealitatea kontzeptualizatzeko duen modua esplikatzea.

Errenazimendua eta Aro Modernoa lotzen ditu historian.

Aro Modernoaren ezaugarriak deskribatzen ditu.

Descartesen testuak aztertzen ditu.

Descartesek subjektua-objektua erlazioari, eta ondorioz, ezagutzaren arazoari eman zion irtenbidea azaltzen du.

“Indibidualtasunaren” kontzeptu modernoaren sorrerarekin lotzen du irtenbide hori.

Spinozaren testuak aztertzen ditu.

Bi autoreek subjektu-objektu erlazioari eta ezagutzari buruz zuten pentsaera konparatzen du.

Filosofia historian ezagutza aztertzeke izan duen bilakaeran, lotu egiten ditu arrazionalismoa eta zentzumenak-arrazoimena dualtasuna.

Azaltzen du arrazionalismoak zer zentzutan erabiltzen zuen “arrazoimena” kontzeptua.

Modernitatearen programarekin lotzen ditu arrazionalismoaren oinarriko tesiak.

Askatasunerako aukerak eztabaidatzen ditu bi autoreen filosofian.

Aro Modernoaren eta Filosofiaren gaineko kontzeptuzko mapa bat egiten du taldean.

Filosofia balioesten du, errealitatearekin dugun harremana argitzen ahalegintzen den aldetik.

5. Ilustrazioaren ekarpen historiko eta filosofikoak aztertzea eta balioestea; demokraziari eta berdintasunaren eta eskubide indibidualen aldeko borrokari egindakoak, batik bat.

Lockeren testu politikoren bat aztertzen du.

XVI.XVII. mendeetako Ingalaterran kokatzen ditu Lockeren ideia politikoak.

Ilustrazioaren pentsaerak Britainia Handian izan zuen jatorriari buruzko informazioa bilatzen eta hautatzen du, laburpen xume bat egiteko.

Enpirismoari buruzko testuak aztertzen ditu (Locke eta Hume).

Descartes eta Hume autoreek "arrazoimena" kontzeptuaren gainean eta subjektua-objektua erlazioaren gainean zituzten aldeei buruzko saiakera labur bat egiten du.

Filosofia historian ezagutza aztertzeke izan duen bilakaeran, lotu egiten ditu enpirismoa eta zentzumenak-arrazoimena dualtasuna.

Ilustrazioak Frantzian izan zituen hastapeneko gertakariak deskribatzen eta egile nabarmenak adierazten ditu.

“Argien Mendeko” pentsaera filosofikoaren oinarriak azaltzen ditu (aurrerabidea, arrazoimena, berdintasuna, tolerantzia, etab.).

Rousseauren testuak aztertzen ditu.

Ilustrazio frantziarrak demokraziaren eta eskubide indibidualen garapenari eta finkapenari egindako ekarpenak azaltzen ditu.

Ikuspegi politiko eta moraletik epaitzen ditu ekarpen horiek.

Modernitatearen programarekin lotzen ditu ekarpenok.

Eduki digital bat sortzen du ekarpen horiek deskribatzeko eta balioesteko.

Filosofia historian izan duen egitekoa balioesten du, gizartearen eboluziorako ezinbestekoa den pentsamolde kritikoa lantzen duen aldetik.

6. Ohartzea Kanten filosofia garai hartako filosofia-korronte nagusiei (arrazionalismoa, enpirismoa,

Ilustrazioa, zientzia fisiko-matematikoa) emandako erantzuna izan zela, eta jakitea zer-nolako eragina izan zuen Kanten filosofia Aro Modernoaren kosmobisioan.

Kanten testuak aztertzen ditu.

Kritizismo kantiarraren tesi nagusiak azaltzen ditu.

Aurreko filosofiekin konparatzen ditu tesi horiek.

“Zer da Ilustrazioa? galderari erantzuna” eta

“Betiko bakea” lanetako testuak aztertzen ditu.

Ilustrazioaren ideiekin lotzen ditu lan horiek tesiak, eta bereziki, Rousseauren ideiekin.

Balioesten du zer eragin izan zuen Kanten filosofia Aro Modernoan landu ziren ideietan eta izan

ziren aldaketa sozialetan.

7. Marxismoa iraultza helburu duen filosofia praktikotzat hartzea, eta jakitea joera horrek, langile mugimenduaren

borroka dela tarteko, zer-nolako eragina izan duen.

XIX. mendearen hasierako Europaren

testuinguruan kokatzen du Marxen lana, bai maila

intelektualean, sozialismoaren sorrerarekin, bai maila sozialean, garapen industrialarekin eta proletarioen sorrerarekin.

Marxismoaren aurrekari filosofikoak azaltzen ditu, Kant, Hegel eta Feuerbach autoreengandik eta Marxek autore horiei egindako kritikatik abiatuta.

Marxen testuak aztertzen ditu.

Marxismoak, gerora, munduaren bilakaera historikoan izan duen eragina ebaluatzen du.

Marxismoak kapitalismoari egindako kritikaren eta proposamen komunista alternatiboen azalpen orokorra ematen du.

Arrazoimenaren interpretazio kapitalista, arrazoimen ekonomiko moduan: kostua-etekina harremana.

Filosofiaren alderdi praktikoa balioesten du, mundua eraldatzeko tresna den aldetik.

8. Nietzschek Mendebaldeko kulturari (arrazionalismoari eta idealismoari, batik bat) egindako kritikaz gogoeta egitea.

Nietzscheren zenbait testu labur kritiko irakurtzen eta interpretatzen ditu.

Nietzschek kulturari, mendebaldeko filosofiari, eta bereziki, arrazionalismoari eta idealismoari egindako kritikaren gaineko azalpen orokorra ematen du.

Nietzscheren lanaren esparru historikoa deskribatzen du.

Nietzscheren testuak aztertzen ditu.

Gerora Nietzscheren tesi nagusien gainean egin diren interpretazioei buruzko informazioa bilatzen du Sarean.

Nietzschek kulturari egindako kritikari buruzko saiakera bat egiten du, eta saiakera horretan, argudiatuta azaltzen ditu bere ikuspuntuak.

Eduki digital bat sortzen du taldean, bere ustean nabarmenenak diren ekarpenak azaltzeko.

Filosofiaren dimentsio kritikoaren balioa aitortzen du, pentsamendu dibergentearen defentsa egiten duen aldetik.

9. Ortega y Gasseten arraziobitalismoa aintzat hartzea, eta ohartzea horren bidez Ortegak bere garaiko filosofian nagusi ziren bi korronteak uztartu nahi izan zituela, Espainiako gizarteari proposamen politiko-sozial bat egiteko.

Garai hartako egoera filosofikoa, kulturala, politikoa eta soziala deskribatzen du.

Ortegaren testuak aztertzen ditu.

Korrante filosofiko nagusiekin, bitalismoarekin eta arrazionalismoarekin, lotzen ditu Ortegaren tesiak.

Espainiaren egoera politiko eta sozialaren testuinguruan kokatzen ditu Ortegaren proposamenak.

Begirunez behatzen du Ortega y Gasset filosofoak kontrako tendentziak uztartzeko egin zuen ahalegina.

10. Frankfurteko Eskolak egindako kritikaz gogoeta egitea, eta jakitea zer bilakaera izan duen Habermasek arrazoimen dialogikoaren bidez gizartea berregituratze aldera egindako proposamenak eta arrazoimen instrumentalaren bere interpretazioak.

Europak Bigarren Mundu Gerraren ostean bizi izan zuen egoera deskribatzen du, eta Frankfurteko eskolaren kritikarekin lotzen du.

Frankfurteko eskolaren testuak aztertzen ditu.

Arrazoimen instrumentalaren kritika laburtzen du.

Kritika horren egokitasuna balioesten du filosofiaren historia aztertuta (arrazionalismoa, enpirismoa, ilustrazioa, marxismoa, bitalismo nietzschearra).

Habermasek arrazionaltasun dialogikoari buruz egindako testuak aztertzen ditu.

Habermasek Frankfurteko eskolaren kritikaren gainean egindako proposamena balioesten du.

Arrazionaltasun dialogikoan ardaztutako demokraziaren aukeraz eztabaidatzen du.

Aitortu egiten ditu, bai Frankfurteko eskolak kultura europarraren alderdi baztergarriak (eurozentrismoa, fanatismoa, xenofobia, antijudaismoa, emakumearen diskriminazioa, etab.) gainditzeko egin zuen ekarpena, bai Habermasek demokrazia subjektuen arteko aitortzatik abiatuta egituratzeko egin zuen ahalegina.

Arrazoi instrumentalaren oinarri filosofiko-antropologikoak eta giza eskubideetan oinarritutako gizakiaren ikuspegia erkatu egiten ditu.

11. Pentsamendu posmodernoaren tesi nagusiak eta korrante horrek globalizazioaren testuinguru historikoan modernitateari egindako kritikak balioestea.

Globalizazioa eta bere ezaugarriak eta ondorioak deskribatzen ditu.

Postmodernitateko testuak aztertzen ditu.

Testu horien tesiak komentatzen eta eztabaidatzen

	<p>ditu.</p> <p>Globalizazioan ematen diren gizarte-gertakariekin lotzen ditu tesi horiek.</p> <p>Tesi postmodernoek gaur egungo egoeraren berri ematen ote duten balioesten du.</p> <p>Pentsaera postmodernoak oro har modernitateari eta, bereziki, ilustrazioari egiten dion kritika laburtzen du.</p> <p>Nietzschekek egindako kritikarekin lotzen du kritika hori.</p> <p>Habermasek filosofia postmodernoarekiko polemikaren inguruan idatzitako testuren bat irakurtzen du.</p> <p>Polemika horren gainean eztabaidatzen du, zentzu bateko zein besteko argudioak emanez.</p> <p>Taldean egindako eduki digital batean azaltzen ditu eztabaida horren emaitzak.</p> <p>Taldean oinarritzko hipotesia elaboratzen du, giza eskubiden baliogarritasun unibertsalari dagokionez filosofia postmodernoak erakusten duen jarrerari buruz.</p> <p>Filosofia postmodernoaren pentsamenduaren historian une kritiko baliotsua dela aitortzen du, ausardia intelektualez jokatu zuelako.</p>
--	--

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

1. Ebaluazioa:

- 1.1. Antzinako Filosofia: Sokrates, Platon eta Aristoteles. (21 ordu)
- 1.2. Erdi Aroko Filosofia: Hiponako Agustin eta Akinoko Tomás. (6 ordu)

2. Ebaluazioa:

- 2.1. Hiponako Agustin (amaitu) (6 ordu)
- 2.2. Aro Modernoko Filosofia: Errenazimendua, Deskartes (Arrazionalismoa), Hume (enpirismoa) (18 ordu)

- 2.3. Kant eta Ilustrazioa (2 ordu)
- 2.4. XIX. mendeko mugimendua: (Positibismoa, Freud, Darwin) (3 ordu)
- 2.5. Nietzsche eta Arrazionalitatearen krisia. (10 ordu)
- 2.6. Marx (3 ordu)

3. Ebaluazioa:

- 3.1. Nietzsche eta Marx amaitu.
- 3.2. XX. mendeko mugimenduak:
 - 3.2.1. Wittgenstein (15 ordu)
 - 3.2.2. Ortega y Gasset (3 ordu)

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Apunteen jarraipena, testuen analisia, proiektuen metodologia, talde eztabaidan oinarritutako metodologia kooperatiboa, bakarkako barne-hausnarketa lana...

Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Ataza horiek prestatzeko formakuntza lan saio batzuk antolatuko dira eta bertan landutakoa 3. ebaluaketan zehar ikasgeletan gauzatuko da.

BALIABIDEAK:

- Baliabide analogikoak

Testu libururik ez da izango.

Apunteak, fotokopiak, Interneteko baliabideak, ordenagailuak, sakeleko telefonoak erabiliko dira ikerketa egiteko

- Baliabide digitalak

Ikasleek prestatutako materialak.

Google + Komunitatea ; bertan ikasleek ekarpen pertsonalak egingo dituzte.

Google Classroom; bertan irakasleak agindutako lanak bideratuko dituzte ikasleek.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>Gaia gainditzeko ebaluaketa bakoitzean idatzizko frogak, hau da, ebaluaketa-azterketa gainditu beharko dituzte.</p> <p>Frogen balioa:</p> <ul style="list-style-type: none">● Aipatutako frogak (azterketak) notaren 90% hartuko du.● Notaren % 10 klasera etortzea, gelako lana, klaseko jarrera, eta ikasleei eskatutako lanak (ikasle guztiei lan berdina). Hau da, arlo horietan huts eginez gero, notaren %10 arte deskonta daiteke.	<p>Frogen balioa:</p> <ul style="list-style-type: none">● Azterketak: Aipatutako frogak (azterketak) notaren 90% hartuko du.● Jarrera: Notaren % 10 klasera etortzea, gelako lana, klaseko jarrera, eta ikasleei eskatutako lanak (ikasle guztiei lan berdina). Hau da, arlo horietan huts eginez gero, notaren %10 arte deskonta daiteke.

<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<p>Errekupeatzeko aukera: Ebaluaketa bakoitzean, azkenengoan izan ezik, lehen azterketa errekupeatzeko aukera egongo da, azterketa berezitua eginez edo ondorengo azterketetan galdera bereziak erantzunez.</p>	

OHARRAK / OBSERVACIONES

--